

JAI- ETA AISIALDI- EREMUETAN INDARKERIA MATXISTA PREBENITZEKO ETA AURKA JARDUTEKO PROTOKOLOA

Bergaran, 2025eko ekainaren 2an



**Bergarako
Udala**



ERASO MATXISTA eta
LGTBI+ fobikonik EZ!!

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. TERMINOLOGIA
3. PRINTZPIOAK
4. ESPARRUAK
5. JARDUTEKO PROZEDURA
6. ERANTZUN PUBLIKOA
7. PROTOKOLOAREN JARRAIPENA
8. ARRETA-BALIABIDEAK
9. ERANSKINAK:
 - I. Hitzarmen eta kontratuetan sartzeko protokoloari buruzko klausulak
 - II. Barrakak antolatzeko hitzarmenean ezartzeko klausulak
 - III. Jaietan eraso matxistei aurre egiteko gida
 - IV. Erasotua izan bazara, ezagutu beharrekoak
 - V. Protokoloaren sinatzaileak

1. SARRERA

Gaur egun, tokiko jaietan eraso matxisten aurkako protokoloa ezartzeko premia lehentasun ukaezina bihurtu da, eta urtean zehar abian jartzea aisia-jardueretan, betiere beren ezaugarriengatik pertsona asko batzen badituzte. Protokolo hau babes-neurri bat da, eta urrats erabakigarria gizarte bidezkoago eta berdinzaleagoa eraikitzeko.

Lehenik eta behin, funtsezkoa da pertsona guztiek gizarte-jardueraz gozatzeko duten eskubidea aitortzea, generoagatiko jazarpen, eraso edo diskriminazioa pairatzeko beldurrik gabe. Tokiko jaiak eta aisialdiko beste edozein gune, elkartzeko eta ospatzeko eremuak izateaz gain, leku seguruak izan behar dira, pertsona bakoitza errespetatua eta babestua sentitzeko.

Jaiak eta aisialdi-eremuak gizarte-ordenaren isla dira, eta horregatik garrantzitsua da beren antolaketa eta garapena jorrazteko orduan ikuspegi feminista bermatzea. Ildo horretan, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistarik gabeko jaiak eta aisialdiko jarduerak antolatzeko orduan, abiapuntua izan behar da aitortzea espazio horietan gizartean aurrez ezarritako sinesmen, estereotipo eta jarrera matxistak erreproduzitzen direla (eta batzuetan errazago azalarazten direla).

Indarkeria matxista gizonen, emakumeen eta genero-disidenteen arteko desberdintasunaren adierazpen argiena izateaz gain, patriarkatua desberdintasun hori iraunarazteko erabiltzen duen estrategia nagusia ere badela aitortzetik abiatzen gara. Era berean, onartzen dugu beldurra dela estrategia hau osatzen duten tresnetako bat, eta beldur horrek jai-eremuetan forma espezifikoak hartzen dituela, emakumeek eta genero-disidenteek gozatzeko duten askatasuna mugatzeko. Zaintza kolektibotik abiatuta beldurra desagerraraztea da protokolo honen gakoetako bat.

Azkenik, gogorarazi behar dugu sexu-eraso bortitzenak ez direla espazio publikoan gertatzen, espazio pribatuan baizik, eta oso zaila egiten zaigu erakunde moduan espazio horietara ailegatzea. Hori dela-eta, udal eta gizarte-eragile gisa eskura ditugun espazio publikoetatik prebentzioa indartzea funtsezkoa da.

Arestian aipatutako arrazoi guztiagatik, biktimei laguntzeko ingurune seguru bat sortzeko funtsezko zeregina du protokolo honek, eraso matxistei aurre egiteko prozedura argiak ezartzen baititu. Baina eskubide indibidualen babesetik harago, *Jai- eta aisialdi-eremuetan indarkeria matxista prebenitzeko eta aurka jarduteko protokoloa* onartzea tokiko eragileen arteko lankidetzaz eta erantzunkidetasun-espazioak sortzen aurrera egiteko funtsezko urratsa da, Bergaran indarkeria matxista prebenitzeko eta hari aurre egiteko orduan.

Hori dela-eta, Bergarako Udalak, Martxanterak eta Oñeztua talde feministen aldarrikapenak eta ekarpenak jasoz, dokumentu hau sortu du. Dokumentua prozesu baten abiapuntua da, eta parte hartuko duten eragile guztien ekarpenekin etengabe osatzeko asmoa dugu.

Bergara, 2025eko ekainaren 2an.

Gorka Artola

Bergarako Alkatea

2. TERMINOLOGIA

INDARKERIA MATXISTA:

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa da; genero-desberdintasunen adierazpen larriena den honek nagusiki emakumeei eragiten diete baina baita sexu-orientazioagatik, identitateagatik edo genero-adierazpenagatik indarkeria eta diskriminazioa jasaten duten pertsona guztiei ere. Indarkeria matxista, beraz, kontrol-mekanismo bat da, "sexu/genero/sexualitate-desira" eskemaren erreproduktzioa bermatzekoa. Hau da, berezitasunak gorabehera, emakumeen eta LGTBQIA+ herritarren aurkako erasoek sustrai bera dute: matxismoa. Hori izango da esparru-kontzeptua, eta bertan sartzen dira emakumeengan eta "sexu/genero/sexualitate-desira"ko eskema tradizionala erreproduzitu nahi ez duten pertsonengan egiten diren indarkeria-modu guztiak, espazio fisiko eta sinboliko guztietan; izan ere, ulertzen da jasaten dituzten indarkeria-adierazpenak haurtzarotik adierazten direla eta bizitza osoan zehar forma desberdinak hartzen dituztela. Horrenbestez, politika publikoek errealitate-aniztasun horri erantzuteko erantzukizuna dute, betiere zeharkako ikuspegi intersektional batetik.

Bestalde, protokolo hau aplikatzeko orduan kontuan hartuko da 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen Testu Bategina onartzen duena) indarkeria matxista definitzerakoan definizioa zabaldu egiten duela eta bertan sartzen ditu bai indarkeria zuzenean pairatzen duten emakumeak, bai ingurune hurbileko pertsonak. Modu espezifikoan hartuta, indarkeria matxistatzat ere hartzen da biktimei laguntzen dieten pertsonen aurka egiten dena, bai eta haien ingurune afektiboaren aurka egiten dena ere, bereziki semeen, alaben eta beste senide batzuen aurka, emakumea atsekabetzeko asmoz.

INDARKERIA SEXISTA

Emakume izate hutsagatik eta emakume izateak adierazten duenarengatik berariaz emakumeen aurka egindako indarkeria mota guztiez ari gara:

Genero-indarkeria: 1/2004 Lege Organikoak (abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa) honela definitzen du indarkeria: "Indarkeria fisiko eta psikologikoko ekintza oro, sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo askatasuna arbitrarioki kentzea barne, baldin eta gizonak emakumeen ezkontide izan diren emakumeen aurka edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituzten edo izan dituzten emakumeen aurka egiten badute, nahiz eta elkarbizitza ez izan". 8/2015 Lege Organikoak (uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena) aldaketak egiten ditu 1/2004 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenean, eta indarkeriaren erasotua diren emakumeen seme-alabak zuzeneko erasotua gisa sartzen ditu. Horrela, amen eskubide berberen jabe eta edukitzaile bihurtzen ditu, eta behar duten arreta bermatu behar die.

Sexu-indarkeriak: 10/2022 Lege Organikoak (irailaren 6koa, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa) honela definitzen ditu sexu-indarkeriak: onartu gabeko edozein sexu-ekintza edo bizitza sexualaren garapen askea edozein eremu publiko edo pribatutan baldintzatzen duen edozein sexu-ekintza, eremu digitala barne; eta feminizidio sexuala, hau da, emakumeen genitalen mutilazioari, ezkontza behartuari, konnotazio sexuareko jazarpenari eta sexu-esplotaziorako salerosketari lotutako

emakumeen eta nesken hilketatzat edo erailketatzat hartuta, eta haiek ere sexu-indarkeriatzat hartuta.

Egungo kontzeptu juridikoak integratzeko asmoarekin, honako hauek bereiziko dira nagusiki:

- **Sexu-erasoak:** (Zigor Kodearen 178.etik 183.era bitarteko artikulua) Sexu-edukiko egintzak betiere nagusitasun-egoera batean edo erasotuaren zaurgarritasun-egoera batean indarkeria, larderia edo abusua erabiltzen denean, bai eta konorterik gabe dauden edo haren egoera mentalaz abusatzen diren pertsonen aurka egiten direnak ere, bai eta edozein arrazoirengatik erasotuak bere borondatea deuseztatuta duenean egiten direnak ere. Hamasei urtetik beherakoekin egindako sexu-egintzak ere sexu-erasoak dira.
- **Sexu-jazarpena:** (Zigor Kodearen 184. artikulua) Norberarentzako edo hirugarren batentzako sexu-mesedeak eskatzea lan-, irakaskuntza-, zerbitzu- edo antzeko harreman batean, jarraitua edo ohikoa, eta jokabide horrekin erasotuari larderiazko, etsaitasunezko edo umiliagarritzko egoera objektibo eta larria eragitea.

INDARKERIA LGTBIQA+FOBIKOA:

LGTBIQA+fobia da LGTBIQA+ pertsonetikiko mespretxua, amorrua, mesfidantza eta diskriminazioa, eta sexualitateen eta generoen aniztasuna mugatzeko presioa eginez funtzionatzen du. LGTBIQA+ siglek pertsonen sexu-aniztasunaren, genero-identitatearen eta genero-adierazpenaren adierazpen ugarietara egiten diete erreferentzia: lesbianak, gayak, transexualak, bisexualak, intersexualak, Queer eta beste batzuk.

3. PRINTZIPIOAK

• Erasotuak dira helburu

Edozein motatako indarkeria matxista detektatzen edo behatzen den guztietan, lehentasunezko arreta indarkeria jasan duen pertsonarengana zuzendu behar da. Funtsezkoa da arreta egokia, berehalakoa eta integrala jasotzen duela ziurtatzea. Indarkeria matxistaren aurrean azkar eta eraginkortasunez jardun behar da eta bermatu behar da erasoak jasan duen pertsona ez dela bakarrik geratzen – kontrakoak eskatzen ez badu behintzat–. Garrantzitsua da erantzutea eta erasotzailearen aurrean neurriak hartzea, baina hori ez da inoiz jarriko erasotuaren berehalako ongizatearen aurretik.

• Erasotuaren erabakiak errespetatzea

Funtsezkoa da erasotuaren erabakitzeko gaitasuna errespetatzea. Garrantzitsua da behar den informazio guztia eta aholkularitza egokia ematea, azken hitza eta erabakia berea dela gogoraraziz beti.

• Prozedura penaletik harago

Funtsezkoa da kontuan hartzea indarkeria matxistaren salaketekin lotutako prozesu penalak konplexuak eta zailak direla erasotuaerentzat, eta askotan ez direla berak nahi duen bezala amaitzen. Horrek frustrazioa eragin dezake, eta, beraz, garrantzitsua da beste irtenbide batzuk azaltzea eta ezagutaraztea, eta erasoak jasan duen pertsonaren errehabilitazio-prozesuan zentratzea.

- **Erasotzaileari gaitzespena**

Funtsezkoa da erasotzailearekiko jarrera erosoak ez izatea, ezta tentsioa arintzeko ere. Garrantzitsua da haren jarrera gaitzestea eta haren ingurukoak ere horretan inplikatzea. Jarrera matxistak ikusten diren guztietan, erasotzaileari bere jokabidea eteteko eskatu behar zaio, bere ingurukoak ere horretan konprometituz jarrera horiek geldiarazteko.

- **Konfidentzialtasuna**

Funtsezkoa da erasoak jasan duen pertsonaren intimitatea errespetatzea, bai eta erasoak leporatu zaion pertsonaren errugabetasun-presuntzioa errespetatzea ere. Horregatik, ez da informaziorik zabalduko; horrela, zurrumurru, sentsazionalismo eta alarma sozialik gerta ez dadin.

4. ESPARRUAK

Protokolo hau indarkeria matxistaren kasu guztietan aktibatuko da, bai emakumeen aurkako erasoetan, bai LGTBIQA+ kolektiboaren aurkakoetan. Tokiko jaietan abian jartzeaz gain, protokoloa urte osoan egongo da martxan, jarraian aipatzen diren eremuetan gertatzen den edozein eraso matxistaren aurrean:

- ✓ **UDALAK EDO UDALAREKIN LANKIDETZAN ANTOLATUTAKO KULTURA-JARDUERETAN:** Edozein kultura-ekintzatan garrantzitsua da berdintasun-printzipioa bermatzea, horretarako beharrezkoak diren neurriak ezarri. Indarkeria matxistaren kasuan, prebentzio-neurriak bermatu behar dira, bai eta behar bezala identifikatzeko eta tratatzeko neurriak ere. Horregatik, Bergarako Udalak nahitaez bete beharreko klausula bat sartuko du pixkanaka (I. ERANSKINA) kultura-jarduerak antolatzeke sinatzen diren hitzarmen eta kontratuetan, betiere parte-hartze handia aurreikusiz gero (kontzertuak, herri-bazkariak, zezen-plazan antolatzen diren jarduerak, etab.). Klausula horren bidez, jarduera antolatzen duen elkarteak konpromisoa hartuko du jarduera hori antolatzerakoan protokolo hau abian jartzeko. Era berean, elkarteak konpromisoa hartuko du Udalak urtero antolatuko duen protokoloari buruzko prestakuntzan parte hartzeko.
- ✓ **BARRAKAK:** Barrakak dibertitzeko eta entretenitzeko lekuak dira, baina, era berean, tradizioz genero-estereotipoak eta arau patriarkalak islatu izan diren lekuak ere badira. Gainera, espazio horien ezaugarri bat da adingabeen presentzia handia izatea, askotan pertsona helduen laguntzarik gabe; beraz, funtsezkoa da haien segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea. Horregatik, barrakak antolatzeke urtero sinatzen den hitzarmenean nahitaez bete beharreko klausula bat sartuko da (II. ERANSKINA), eta horren bidez barrakak antolatzen dituen erakundeak protokolo hau abian jartzeko konpromisoa hartuko du. Era berean, Udalak urtero antolatuko duen protokoloari buruzko prestakuntzan parte hartzeko gonbidapena helaraziko zaie ferrialariei.

- ✓ **TXOSNAGUNEA:** Txosnetan, aurreko espazioetan bezala, gizartean aldez aurretik ezarrita dauden sinesmen, estereotipo eta jarrera matxistak ere erreproduzitzen dira, batzuetan modu esplizituagoan, alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumoak eragin ditzakeen ondorio desinhibitzaileak direla-eta. Espazio horretan, Bergarako mugimendu feministak kudeatuko du bere berariazko protokoloa, eta hala jasoko da Xaxau elkarteak eta Udalak txosnen espazioa kudeatzeko urtero sinatzen duten hitzarmenean. Horrela, hitzarmen horretan nahitaez bete beharreko klausula bat jasoko da, eta horren arabera Xaxau elkarteak konpromisoa hartuko du txosnagunean indarkeria matxista prebenitzeko eta artatzeko mugimendu feministak proposatuko duen protokoloa ezartzeko, bai eta mugimendu feministak protokoloa abian jartzeko egokitzat jotzen dituen prestakuntzetan parte hartzeko ere. Momenturen batean, edozein arrazoiengatik, mugimendu feministak erabakitzen badu ez duela txosnagunean protokoloaren kudeaketaz arduratu nahi (edo ezin duela protokoloaz arduratu), Udalak hartuko du ardura hori.

- ✓ **TABERNAK:** Emakumeek eta genero-disidenteeek historikoki tabernetan borrokatu izan dute jazarpenaren eta diskriminazioaren aurka; hori dela-eta, garrantzitsua da eremu horietan kolektibo horiek berdintasunezko sarbidea eta segurtasuna dutela bermatzeko neurriak hartzea. Era berean, txosnetan gertatzen den bezala, eraso matxistak areagotu egin daitezke gune horietan alkohola eta beste substantzia batzuk kontsumitzeak eragin ditzakeen desinhibitzaileen ondorioz. Horregatik, bai Udalak bai Mugimendu Feministak urtero dei egingo diete Bergarako taberna guztiei protokolo honi atxikitzeke. Protokoloari atxikitzeke beharrezkoa izango da lokaleko langileek Udalak antolatuko duen protokoloari buruzko urteko prestakuntzan parte hartzea. Protokoloari atxikitzen zaizkion tabernei protokoloa kudeatzeko material egokiak emango zaizkie.

- ✓ **KALEAK:** Kaleak gune publikoak dira non emakumeek eta genero-disidenteeek egunero indarkeria matxistari aurre egin behar izaten dioten. Hala ere, herriko jaietan, kaleetako segurtasunik ezaren sentrazioa areagotu egin daiteke hainbat faktoreren ondorioz; besteak beste, gaueko orduetan joan-etorrietan, gutxi argizatutako eta jende gutxi ibiltzen den espazioetan, batzuetan bakarrik joanda eta batzuetan alkoholaren eta/edo beste substantzia batzuen eraginpean. Horregatik, beharrezkoa da jaietan ere kaleetan segurtasun-sentrazioa areagotzeko lan egitea, eta, beraz, Udalak, Bergarako mugimendu feministarekin lankidetzan, horretarako neurri egokiak hartuko ditu jaien aurretik.

5. JARDUTEKO PROZEDURA

Jarduteko prozedurak hiru une desberdin hartuko ditu kontuan:

1. Zer neurri har daitezkeen goian aipatutako espazioetan indarkeria matxista **prebenitzeko**
2. Indarkeria matxista **detektatzeko** ekintzak, lehen zantzuetatik esku hartzeko.
3. Eraso jasan ondoren, erasotuari **arreta** emateko neurriak, eta erasotzaileei **aurre egiteko** jarraibideak

5.1.1 Prebentzioa

Protokolo honen xede diren espazioetan indarkeria matxista prebenitzeko, jarraian aurkezten diren jarraibideak hartu beharko dira kontuan; baita kontuan hartu ere neurri horiek esku hartzen ari den espazio zehatzera egokitu beharko direla:

- **Jarduera antolatzerakoan, berdintasun-printzipioa bermatzea:**
 - Erabakiak hartzeko guneetan, jardueran bertan eta bertaratutako publikoari dagokienez, berdintasunezko eta askotariko partaidetza izango dela bermatuko da. Horretarako, kontuan hartuko dira emakumeek espazio gehienetan berdintasunez parte hartzeko dituzten zailtasunak, baita emakumeen arteko desberdintasunak eta genero-aniztasuna ere.
 - Espazioaren edo jardueraren zabalpenean (kartelak eta gainerako hedabideak), hizkera inklusiboa erabiliko da, eta irudietan emakumeen, gorputzen eta generoen aniztasuna adieraziko da. Emakumeen irudia ez da inola ere sexu-objektu gisa erabiliko.
 - Edukiari dagokionez (musika barne), inola ere ezingo da zabaldu indarkeria matxista justifikatzen duen eduki edo muskarik.
- **Sartzeko irizpide diskriminatzaile edo sexistarik ez erabiltzea –ez esplizituki ez inplizituki–. Honelakoak izan daitezke:**
 - Generoaren arabera ezberdinak izatea sartzeko prezioak, edari-sariak, doako sarrerak eta abar.
 - Generoaren araberako jantzi-kodeen araudi ezberdinak.
 - Sarrera-kontrolako arduradunek jarrera arbitrarioa izatea irudi pertsonalean oinarrituta (batez ere, nesken irudi erakargarrian).
- **Argi eta garbi jakinaraztea eraso matxistak egiten dituzten pertsonak espazio edo jardueratik kanporatuko direla, eta gune horretatik kanpo gainerako erabiltzaileekiko jazarpen- edo errespetu falta-jarrerak erakusten dituzten pertsonen ez zaiela sartzeko utziko. Neurri hori justifika daiteke 112/2010 Dekretuan (34. eta 37. artikulua) aisialdiko lokaletara sartzeko ezarritako muga orokorrak zorrotz aplikatuz (*112/2010 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Erregelamendua onartzen duena*).**
- **Espazioan, berdintasuna eta sexu-askatasuna sustatzeko konpromisoa azaltzeko kartelak jartzea, bai eta balizko erasoei erantzuteko protokoloa dagoela azaltzeko ere. Arduraduna identifikatzea zaila den espazio zabaletan, eraso edo jazarpen egoerak salatzen erabil daitezkeen telefonoa eduki behar da (eta ezagutarazi).**
- **Zaintza espezifikoa gune bereziki ilunetan:**
 - Gune bakoitzean, eremu ilunak, ezkutukoak edo erabiltzaileen zaurgarritasuna edo bakardadea errazten dutenak ebaluatu behar dira.
 - Eremu horiek lehentasun handienekotzat hartu behar dira zaintzari dagokionez.

5.1.2 Detekzioa

- **Alderdi orokorrak:**
 - Gune horietako langile guztiek gutxienezko prestakuntza izan behar dute eraso- eta jazarpen-tipologiak detektatzeko eta bereizteko, bai eta kasu bakoitzean deribazio-zirkuitua ezagutzeko ere.

- Gainera, protokoloari atxikitako gune guztietan, protokoloa kontsultatzeko materialak egon behar dira.
- Jazarpen-egoera bat gertatzen den guztietan, arduradunari bideratuko zaio zuzenean, eta ezarritako urratsak abiaraziko dira.
- Kontuan izan behar da modu autonomoan hartutako edo beste pertsona batek emandako substantzien eraginpean dauden pertsonekin izaten diren sexu-harremanak delituak direla eta kategoria honetan sartzen direla.

➤ **Sexu-jazarpenaren eta LGTBQA+fobikoaren adibide batzuk**

- Baztertze-giro bat sortzea norbaitengan, pertsona horren generoan, sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarrituta.
- Izaera sexualeko komentario edo txiste desegokiak esatea beste pertsona bati buruz; hala nola, jaso nahi ez diren iradokizun sexualak edo itxura fisikoari buruzko txantxak.
- Nahi ez diren hurbilketak. Adibidez, norbait baimenik gabe hurbilegi dantzatzen saiatzea edo behin eta berriz saiatzea, baita hari deserosotasuna adierazi ondoren ere.
- Ospakizunen batean jendetza edo anonimotasuna erabiltzea pertsonak jartzeko; hala nola, jende askoren artean modu desegokian ukitzea edo norbaiti etengabe jai-giroan jarraitzea.
- Norbait presionatzea nahi ez diren sexu-joko edo -jardueretan parte hartzeko, nahiz eta ospakizunaren zati bat izan edo "tradizioa" izan.
- Sexu-proposamen desegokiak edo iruzkin lizunak, bereziki modu inbaditzailean.
- Deserosotasuna edo larderia sentiarazten duten begiradak edo keinuak egitea.
- Pertsona bati zuzenean, telefonoz, testu-mezuen bidez edo sare sozialetan zuzendutako iruzkin sexual esplizituak.
- Nahi ez dituen sexu-jardueretan parte hartzeari uko egiten dion norbait ondorio negatiboekin mehatxatzea, beldurra bezalako tresna erabiliz.

➤ **Alkoholaren eta/edo drogen kontsumoaren ondorioz kontzientzia-maila aldatua duten pertsonen aurkako sexu-jazarpenaren kasuan esku hartzea:**

- Kasu horietan, kontuan izan behar da pertsona ez dagoela baliozko baimena emateko moduan, eta, beraz, detektatzeko kasurik zailena da.
- Norbait alkoholaren eta/edo drogen eraginpean dagoen pertsona batengana hurbiltzen bada sexu-asmoarekin eta harekin harremanetan jartzen tematzen bada:
 - Hurbildu eragindako pertsonarengana.
 - Kontzientzia eza oso larria ez bada, drogarik gabeko sexu-jazarpen gisa jokatu.
 - Kontzientzia eza oso larria bada, bilatu bere lagunak, ziurtatu ez dela bakarrik geratuko, eta jakinarazi inguruko arreta-arduradunari. Arduradunak baloratuko du ea beharrezkoa den larrialdi zerbitzuetara deitzea. Larrialdi zerbitzuen presentzia beharrezkoa ez bada eta lagunak zaintzeko ardura hartzen badute, zure lana bukatu da. Lagunak agertzen ez badira edo ezin badute egoeraz arduratu, ez laga bakarrik, ardura hartuko duen lagun edo familiar bat aurkitu arte.

➤ **Kontzientzia-maila aldatu gabe duten pertsonen aurkako sexu-jazarpenera edo LGTBQA+ kolektiboko pertsonen aurkako jazarpenera**

- ✓ Tokiko langileek hautematen badute, edo erabiltzaileek edo lagunak adierazten badute:
 - Jazarritako pertsonari deseroso sentitzen ari ote den galdetu

- Pertsona deseroso sentitzen ari bada:
 - o Lehen abisua eman ustezko jazarleari. Bigarren abisuan, espaziotik ateratzera behartuko duzu.
 - o Beharrezkoa izanez gero, eskaini erasotuari arreta-jarraibideetan adierazitakoa (III. ERANSKINA: erasotua izan bazara jakin beharrezkoa).
- ✓ Eragindako pertsonak adierazten badu:
 - Lehen abisua emango diozu ustezko jazarleari. Bigarren abisuan, espaziotik irtetera behartuko duzu
 - Jazarpena jasan duen pertsonak bere burua defendatu badu edo jazarpenari erantzun badio hitzezko indarkeriarekin edo indarkeria fisikoarekin, inoiz ez da parekatuko defentsa-jokabidea jazarpen-jokabidearekin. Bai jakinaraziko zaio toki horretan neurri egokiak hartzeko arduradunak daudela.
 - Beharrezkoa izanez gero, eskaini erasotuari arreta-jarraibideetan adierazitakoa (III. ERANSKINA: erasotua izan bazara jakin beharrezkoa).

5.1.3 Arreta

➤ Alderdi orokorrak:

- Ezer baino lehen, ezinbestekoa da adieraztea bereizi egin behar direla lehen arreta (espazioaren edo lokalaren erantzukizuna) eta ikerketa (segurtasun-indarren eta erakunde judizialen erantzukizuna).
- Erasotua intimitatea babesteko, eraso bat gertatzen denean orokorrean ekintzak ez dira geldituko; edo, gelditzea ezinbestekoa izanez gero, erasotua ondo zaintzeko behar den denboran soilik geldituko dira. Hau da, tabernen kasuan, ez bada beharrezkoa, musika mantenduko da eta argiak ez dira piztuko. Kontzertuen kasuan saihestuko da indarkeria matxistaren arduraduna musika teknikaria izatea, eraso bat izanez gero kontzertuak ez gelditzeko. Erasotua zaintzeko kontzertua gelditzea beharrezkoa bada, musikariek azalpen motz bat emango diote publikoari, eta erasotua ondo artatuta dagoenean kontzertuak jarraituko du.
- Salaketa bidezko prozedura judicial bat hasteagatik poliziaren presentzia beharrezkoa den kasuetan, delitua denez, erreferentziatzeko polizia-kidegoak Ertzaintzarena izan behar du.
- Beharrezkoa da guneak pertsona espezifikoko bat izatea larrialdiko lehen arreta emateko eta egoera kudeatzeko. Pertsona horrek dokumentu honetan jasotako eta gomendatutako eduki espezifikoeekin prestatuta egon behar du.
- Garrantzitsua da gela edo espazio bat izatea eraso jasan duen pertsonari arreta emateko sexu-erasoak edo bortxaketak gertatzen direnean. Gainerako kasuetan, espazio bat eskain daiteke intzidentzia-mailak hala eskatzen duela uste bada.
- Gelak ez du zertan espazio espezifikoko bat izan; langileentzat edo beste erabilera batzuetarako erreserbatutako edozein espazio gaitu daiteke, betiere behar diren lasaitasun- eta isolamendu-bermeak betetzen baditu.
- Espazio horretan, espezializatuta dagoen pertsonak jakin behar du zein baliabidetara bideratu dezakeen erasotua, arreta emateko zirkuituaren barruan.

➤ Sexu-jazarpen kasuetan:

- Erasoa jasan duen pertsonari arreta ematea:

- Hobe da erasotua artatzen duena protokoloaren arduraduna izatea, baina prestatutako langile guztiek ere egin dezakete.
 - Sexu-jazarpen kasu baten aurrean aurkitzen bazara, abisatu dagokion arduradunari. Arreta jasotzeko eta oneratzeko eremu batera eramateko aukera emango dio, eta, behar izanez gero, edari ez-alkoholikoa eskaini ahal izango dio.
 - Bilatu eta abisatu lagunei:
 - o Beren lagunak aurkitu badituzu, galdetu zer behar duten eta ea laguntzeko prest dauden.
 - o Aurkitu ez badituzu, eman denbora erasoja jasan duen pertsonari lagundu diozun espazio lasai horretan oneratu dadin. Ez utzi inoiz bakarrik, kontrakoa eskatzen ez badu.
 - Galdetu larrialdi-zerbitzuen edo polizia-kidegoaren arreta behar duen:
 - o Gizarte-larrialdiak: 112
 - o Udaltzaingoa: 943 77 91 06 / 092
 - Ez larrialdi-zerbitzuak ez polizia-kidegoak artatzea nahi ez badu, adierazi laguntza espezializatua unean bertan jaso dezakeela:
 - o Sexu-indarkeriari arreta integrala emateko foru-zerbitzua: 900 840 188 (24 ordu)
 - o Indarkeria matxistaren erasotua diren emakumeei arreta emateko telefonoa: 900 840 111 (24 ordu)
 - Salaketa bat jartzea erabakitzen badu, baina larrialdietako mediku-zerbitzuen edo polizia-kidegoen arretari uko egiten badio, galdetu ea salaketa bat jarri nahi duen bide penalean, eta, edonola ere, informazio-dokumentua entregatu (III. ERANSKINA: Erasotua izan bazara, jakin beharrekoa). Ziurtatu ez dela bakarrik joango eta ziurtatu salaketa jarriko duela konfiantzazko pertsona batekin.
 - Beharrezkoa bada eta erasoja jasan duen pertsonak hala nahi badu, lagun iezaiozu taxi bat eskatzen edo dei bat egiten, konfiantzazko norbaitek jaso dezan.
- **Erasotzailearen aurrean jardutea**
 - Lokalaren arduradunak edo sarbidea zaintzeko ardura duen pertsonak kanporatuko du lokaletik. Ezetz esan eta irteteari uko egiten badio, 112/2010 Dekretuaren arabera, poliziaren presentzia eska daiteke.

➤ **Sexu-erasoen kasuan:**

- **Erasoja jasan duen pertsonari arreta ematea**
 - Erasoja jasan duen pertsona ahalik eta lasterren artatu, harekin hitz egin eta berehalako arriskurik ez duela ziurtatu
 - Deitu espazioaz arduratzen den pertsona, eta, ahal bada, lagundu erasoja jasan duen pertsona kasu horietarako prestatutako eremura.
 - Arduradunak egiaztatzen badu erasoja jasan duen pertsona egoera larrian dagoela, deitu 112 zenbakira larrialdiko mediku-zerbitzuak eskatzeko.
 - Arduradunak egiaztatzen badu erasoja jasan duen pertsona ez dagoela egoera larrian eta erabakiak hartzeko gaitasuna duela:
 - o Galdetu ea inguruan lagunik duen, artatu bitartean lagun diezaioten.
 - o Adierazi lehentasuna dela bere denborak eta beharrak errespetatzea.

- Galdetu larrialdietako zerbitzu medikoen edo Udaltzaingoaren laguntza (092 – 943779106) eskatu nahi duen (adierazi zerbitzu medikoek parte epaitegira bidaliko dutela eta Udaltzaingoa salaketa ofizioz jarriko duela).
 - Erasotuak nahi badu, deitu larrialdietako zerbitzu medikoetara (112), eta zerbitzu horiek arduratuko dira, beharrezkotzat jotzen badute, dagokion ospitalera eramateaz.
 - Larrialdi-zerbitzua eta polizia-kidegoa espazioan egotea nahi ez badu, adierazi egiozu laguntza emozionala eta medikoa jaso dezakeela eta, nahiago badu, taxi bat eska dezakezu Bergarako erreferentziatzeko osasun-zentrorara joateko.
 - Unean bertan arreta espezializatua jasotzeko:
 - Sexu-indarkeriari arreta integrala emateko foru-zerbitzua: 900 840 188 (24 ordu)
 - Indarkeria matxistaren erasotua diren emakumeei arreta emateko telefonoa: 900 840 111
 - Informa iezaiozu sexu-erasoen kasuetan proba objektibo bakarrak DNaren laginak direla. Erasoren ondorengo lehen orduak erabakigarriak dira ikerketaren emaitza onena bermatuko duten zantzuak lortzeko. Horregatik, osasun-zentro batera joan aurretik ez garbitzea, ez dutzatzea edo arropaz ez aldatzea eta elikagairik edo edaririk ez hartzea gomendatzen da (azken hori ahotik bortxatuta izanez gero).
 - Larrialdiko gizarte-zerbitzuen edo dagokien polizia-kidegoen arreta-emateari uko egiten badio, galdetu salaketa bat bide penalean aurkeztu nahi duen, eta, edonola ere, eman informazio-dokumentua (III. ERANSKINA: erasotua izan bazara jakin beharrakoa)
 - Salaketa jartzea erabakitzen badu, baina larrialdietako mediku-zerbitzuen edo polizia-kidegoen arretari uko egiten badio, ziurtatu ez dela bakarrik joaten eta ziurtatu konfiantzazko pertsona batekin egingo duela. Nahi badu, eskaini taxi bat eta saiatu konfiantzazko pertsona batek lagunduta joaten.
- **Erasotzailearen aurrean jardutea**
 - Gogoratu erasotuari arreta ematea dela lehentasuna, eta ez delitua jazartzea.
 - Erasotzailea edozein pertsonak atxilotu ahal izango du (lokalaren erabiltzaileak edo langileak), baldin eta *in fraganti* harrapatzen badute edo eraso-delitu bat egiteko zorian badago (Prozedura Kriminalaren Legearen 490. artikulua). Kasu horretan, segurtasun-langileek erasotzailea atxilotzeko betebeharra dute (Segurtasun Pribatuari buruzko 5/2014 Legearen 32. artikulua). Beti arriskurik hartu gabe.
 - Erasotzailea ez badute *in fraganti* harrapatzen edo delitua egiteko zorian, baina erasoaren jasan duen pertsonak erasotzailearen deskribapen oso argia eman ahal badu, polizia-kidegoei dei diezaieke atxiloteta egin dezaten. Jarduteko modu hori soilik gauzatuko da pertsonaren deskribapen argia baduzu eta erraz aurkitzeko aukera dagoela uste baduzu, eta nahikoa langile badituzu erasotua une oro lagunduta eta behar bezala zainduta edukitzeko, eta pertsona hori lasai badago deskribapen bat emateko.

6. ERANTZUN PUBLIKOA

"Begarako Indarkeria Matxistaren Erasotua diren Emakumeei Arreta emateko Erakundearteko Koordinazio eta Arretarako II. Tokiko Protokoloa" oinarri hartuta, eraso ez da beti gertatzen erasoaren jasan duen pertsonak erantzun publikoa abian jartzea erabakitzeko

ingurune egokian. Batzuetan, gertaeren zurrumurruak sortzen dira, erasotako pertsonaren testigantza eta kontakizuna zalantzan jartzen dutenak, birbiktimizatuz eta haren aurkako testuinguru bortitza sortuz.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da erasoia jasan duen pertsonaren erritmoa eta erabakiak errespetatzea, erakunde publikoek gertakarien aurrean duten erantzukizuna ahaztu gabe. Beraz, erantzun publikoa prestatzerakoan, argi izan behar dira herritarrei egindako deiaren helburu nagusiak:

- ✓ Erasoa jasan duen pertsonari eta haren ingurukoei elkartasuna eta babesa erakustea
- ✓ Kontuan izan behar da erantzun instituzional publikoa erreparazio-neurri bat dela, eta erasoia jasan duen pertsonaren borondatea errespetatuz egin behar dela beti; beraz, pertsona horrek zer egin nahi duen eta nola egin nahi duen adierazi ahal izan behar du.

Hala ere, erantzun publikoko protokoloa aktibatzea baloratuko da, eragin sozial eta publikoagatik edo komunitatean duen eraginagatik erantzun hori ematea beharrezkotzat jotzen den kasuetan.

Ildo horretan, eta berriz ere «*Bergarako Indarkeria Matxistaren Erasotua diren Emakumeen Erakundearteko Koordinazio eta Arretarako II. Tokiko Protokoloa*» oinarri hartuta, Udalaren eta talde feministen arteko koordinazioa bermatuko da jaietan eta aisialdi-guneetan erasoak gertatuz gero, eskura duten informazioa partekatzeko eta ondorengo ekintzak adosteko. Behin koordinatuta eta erasotuaren adostasunarekin, urrats hauek egingo dira:

- Talde feministek kontzentrazioarako deialdia egingo dute
- Udalak bat egingo du deialdi horrekin, eta parte hartzera gonbidatuko ditu herritarrak.
- Kontzentrazioak irauten duen bitartean, gelditu egingo dira udalak antolatutako jai-jarduera guztiak, eta protokoloari atxikitako taberna guztiak itxiko dira.

Kasuaren arabera, Udalak jaiak aldi baterako edo behin betiko bertan behera uzteko aukera aztertuko du. Erabaki hori ez da inoiz hartuko erasoia jasan duen pertsonaren edo, hala badagokio, haren ingurune hurbilaren baimenik gabe.

7. PROTOKOLOAREN KUDEAKETA

Protokoloaren Jarraipen Batzordea eratuko da, protokoloaren funtzionamenduaren jarraipena eta ebaluazioa egin dezan.

- **Osaera:**

Jarraipen Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Udal-politikariak: Udaleko Kultura eta Berdintasun zinegotziak, eta Alkatea (horrela badagokio)
- Udal-teknikariak: Kultura eta Berdintasun teknikariak
- Udaltzainburua (edo eskuordetzen duena)

- Gizarte-mugimendua: mugimendu feministaren eta jaien antolaketari lotutako elkarte-mugimenduaren ordezkariak
- Udalerriko ostalaritza-mugimenduaren ordezkariak

- **Eginkizunak:**

Jarraipen Batzordeak, aholkularitza- eta proposamen-organo gisa, honako eginkizun hauek izango ditu:

- Protokoloaren funtzionamendua ebaluatzea, honako hauei dagokienez: planteatutako prebentzio-neurriak, biktimei emandako arreta, emandako erantzun publikoa eta inplikaturako eragileen arteko koordinazioa.
- Protokoloaren funtzionamendua hobetzeko proposamenak egitea

- **Funtzionamendua:**

Jarraipen-batzordeak bilera bat egingo du urtero, eta Berdintasun-teknikariak deituko du.

8. ARRETA-BALIABIDEAK

- **Sexu-indarkeriari arreta integrala emateko foru-zerbitzua**
24 ordu/365 egun urtean
900 840 188
- **Indarkeria matxistaren erasotua diren emakumeentzako telefono bidezko arreta-zerbitzua (SATEVI)**
24 ordu/365 egun urtean
900 840 111
- **Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua**
24 orduko arreta
943 22 44 11 (7:00 - 21:00)
112 (21:00etatik 07:00etara)
- **Udaltzaingoa**
943 77 91 06 / 092
San Martin Agirre plaza 1, 20570 Bergara, Gipuzkoa.
- **Anbulatorioa**

943 03 54 00

Boni Laskurain pasealekua 11, 20570 Bergara, Gipuzkoa.

- **Udaleko gizarte-zerbitzuak**

Astelehenetik ostiralera: 8: 30-13:30

943 77 91 00

ongizatea@bergara.eus

- **Berdindu, LGTBIQA+ pertsonen informazioa eta arreta emateko zerbitzua,**

Astelehenetik ostiralera: 10:00-13: 00/16:00-19:00

943 451 722

- **Haurrak eta nerabeak zaintzeko zerbitzua (Gipuzkoako Foru Aldundia)**

24 ordu/365 egun urtean

116 111

- **Emakume migratuentzako laguntza juridikoa eta psikologikoa, Biltzen**

Astelehenetik ostiralera: 09:30 – 14:00

944 001 900

- **Erasotuari Laguntzeko Gipuzkoako Doako Zerbitzua (BLZ).**

24 ordu/365 egun urtean

900 100 928

- **Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko informazio-webgunea (EKIM)**

<https://ekim.euskadi.eus/>

9. ERANSKINAK

I. HITZARMENETAN ETA KONTRATUETAN SARTZEKO PROTOKOLOARI BURUZKO KLAUSULAK

_____ elkarreak *Bergarako jai- eta aisialdi-eremuetan indarkeria matxista prebenitzeko eta aurka jarduteko protokoloa* betetzeko konpromisoa hartuko du. Horretarako, protokoloaren arduraduna izendatuko du. Protokoloaren arduradunaren betebeharrak hauek izango dira:

- Elkarrearen barruan protokoloa zabaltzea
- Hitzarmen honen xede den jarduera edo jarduerak antolatzerakoan protokoloan agertzen diren prebentzio neurriak kontuan hartzea eta ezartzea
- Hitzarmen honen xede den jardueran edo jardueretan parte hartzen duten pertsonen artean protokoloa dagoela ezagutaraztea
- Protokoloa abian jartzea hitzarmen honen xede den jardueran edo jardueretan, eraso matxistak gertatzen badira
- Udalak antolatuko duen protokoloari buruzko urteko prestakuntzan parte hartzea elkarteko beste bi kiderekin batera.
- Jarduera amaitu ondoren, Udalari aurkeztu beharreko memorian atal bat sartuko da, eta bertan deskribatuko da, datu pertsonalik gabe, jarduera garatu bitartean protokoloa martxan jarri behar izan den ala ez, eta horren balorazioa, hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko.

*Aurreko klausula moldatu egingo da hitzarmen edo kontratuaren arabera.

II. BARRAKAK ANTOLATZEKO HITZARMENEAN EZARTZEKO KLAUSULAK:

- Atrakzio eta etxoletako jendaurreko karteletan ez da hizkera edo irudi sexistarik erabiliko, eta emakumeak eta gizonak aipatuko dira. Atrakzioek ezingo dituzte erakutsi emakumeak objektu sexual gisa aurkezten dituzten irudiak.
- Era berean, musika-programazioa duten instalazioek bermatu beharko dute abestiek ez dutela eduki matxistarik sustatzen, eta inola ere ez dutela emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo bultzatzen. Udaleko Berdintasun Zerbitzuak laguntza eskainiko du testuetan egin beharreko zuzenketak egiteko eta musika gainbegiratzeko.
- Debekatuta dago jostailu beliko eta sexistak saltzea atrakzioak dauden esparruan.
- AFEDEk Bergarako Udaleko *Jai-eta aisialdi-eremuetan indarkeria matxista prebenitzeko eta aurka jarduteko protokoloa* onartu beharko du. Ildo horretan, ferialari edo etxola bakoitzean lanean dihardutenek eraso matxistak prebenitzeko neurriak hartzeko ardura izango dute. Alde horretatik, elkarteak Udalak emandako informazio-orri bat eta hainbat material izango ditu (eranskailuak, kartelak edo bestelakoak), eta horiek ikusteko moduko lekuetan jarri beharko dira.
- Halaber, behin eraso matxistaren bat detektatuta, erasotuari arreta eskaini dio, Udaleko protokoloaren irizpideak jarraituz, eta erasotzailea kanporatuko du feria-gune osotik. Kasurik egingo ez balu, Udaltzaingora deituko du ferialariak agindua exekutatzeko. Beharrezkoa balitz, atrakzio edo postua itxi beharko du.
- Halaber, protokoloa ezagutzeko Udalak formakuntza ireki bat antolatuko balu, elkarteak gonbidapena egingo die ferialari guztiei.

III. JAIETAKO ERASO MATXISTEI AURRE EGITEKO GIDA

Gida hori urtero zabalduko da, beharrezkoa dela balioesten den bitartean, hainbat formatutan: ikastetxeetan hezkuntza afektibo-sexualari buruzko programaren barruan, web orriaren bidez, kartelen bidez...

Gogoratu: Indarkeria fisiko edo sexualaz gain, honako hauek ere indarkeria matxista dira: kontrola, baimendu gabeko ukituak, igurtziak, musuak, sexu-harremanak izateko presioa, iruzkin sexistak edo LGBTIfobikoak...

ZURI GERTATU BAZAIZU	LEKUKO IZAN BAZARA
<ul style="list-style-type: none"> Garrantzitsua da jakitea ez zarela inolaz ere gertatu denaren errudun. Deseroso sentitzen bazara, jazartzen bazaituzte edo arriskuan zaudela uste baduzu, saiatu zure inguruan laguntza eskatzen. Ez zaude bakarrik. Txosna, barraka, herri-bazkari, taberna edo kontzertuetan gertatzen bada, galdetu nor den eraso matxisten arduraduna, eta azaldu zer gertatu den. Ordutegiaren barruan bazaude, arreta-gunera joan zaitezke. Sexu-erasoa gertatuz gero, gogoratu: zure gorputza garbitzen baduzu, arropa botatzen baduzu edo zerbait jaten baduzu, frogak ezaba ditzakezu. Frogak galdu badira, ez bota zeure buruari errua, horiek bilatzeko beste modu bat egon daiteke. Beharrezkoa bada, deitu Udaltzaingora (092) edo Larrialdietara (112) Arreta medikoa behar baduzu, kontuan izan larrialdietako zerbitzu medikoen epaitegira bidali behar dutela parte. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Erasotua diren Emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzura (900 840 111) edo sexu-indarkeriari arreta integrala emateko zerbitzura (900840188). 	<ul style="list-style-type: none"> EZ izan konplize. EZ jokatu ezer gertatuko ez balitz bezala. EZ justifikatu. Erasoa jasan duenarengana hurbildu. Erasotzailea ahal den neurrian urrundu. Erasoa egin duenaren aurkako jarrerak erakutsi, betiere zure burua arriskuan jarri gabe. Bilatu espazio seguru bat eraso jasan duen pertsonari arreta emateko, urrundu jaietako zaratatetik eta lasai entzun haren nahiak eta beharrak. Jarri beti erdigunean eraso jasan duen pertsonaren iritzia. Erasoa jasan duenarekin harreman estua duen pertsona bilatu edota galdetu noren laguntza nahi duen. Txosna, barraka, taberna, herri-bazkari, udal-ekitaldi eta kontzertuetan gertatzen bada, galdetu nor den eraso matxisten erantzulea, eta azaldu zer gertatu den. Jakinarazi laguntza eska dezakeela, salaketa jarri nahi izan edo ez. Erasotuari eta bere ingurukoei arreta-baliabideen berri eman. Nahi

izanez gero arreta gunera lagundu, ordutegiaren barruan.

- Beharrezkoa bada edo erasotuen horrela eskatzen badu, deitu Udaltzaingora (092) edo larrialdietara (112).
- Arreta medikoa nahi izanez gero, erasotuari eta bere ingurukoei jakinarazi larrialdietako zerbitzu medikoek parte epaitegira bidali behar dutela
- Saihestu zurrumurrak; gorde konfidentzialtasuna

IV. ERASOTUA IZAN BAZARA JAKIN BEHARREKOAK

- Ezer baino lehen, salaketa jartzea erabaki zein ez, jakin behar duzu laguntza eta arreta psikologikoa eta medikoa jasotzeko eskubidea duzula, jasan duzun eraso bideratzeko.
- Larrialdietarako, hauek dira erreferentzia-zenbakiak:
 - SOS Deiak 112
 - Udaltzaingoa: 092
- Unean bertan arreta espezializatua jasotzeko zerbitzuak hauek dira:
 - Sexu-indarkeriari arreta integrala emateko foru-zerbitzua: 900840188 (24 ordu)
 - Indarkeria matxistaren erasotua diren emakumeei arreta emateko telefonoa: 900 840 111 (24 ordu)
- Garrantzitsua da Arrasateko ospitalera lehenbailehen joatea, erasoak eragindako kalteegatik laguntza fisiko zein emozionala jasotzeko, eta haren frogak erregistratzeko. Sexu-erasoaren ondorengo lehen orduak erabakigarriak baitira ikerketaren emaitza optimoa bermatuko duten zantzuak lortzeko. Eta erasotzaileak drogaren bat eman dizula susmatzen baduzu, dagozkion probak egingo dizkizute.
- Bortxaketen eta sexu-erasoen kasuetan, DNAREN laginak dira froga objektibo bakarrak. Drogak dauden sexu-erasoen kasuan, lehenengo orduak funtsezkoak dira erasotuaren gorputzean substantzia jakin batzuk detektatzeko. Horregatik, osasun-zentro batera joan aurretik, gomendatzen dizugu ez garbitzea, ez dutzatzea edo arropa ez aldatzea, eta bortxaketa ahotik izan bada, ez hartzea elikagairik edo edaririk.
- Ospitalean ingresatuta bazaude eta salaketa jartzea erabakitzen baduzu, ospitalea bera arduratuko da lesioen parte dagokion guardiako epaitegira bidaltzeaz eta polizia eta auzitegiko medikuei abisatzeaz.
- Ospitalean ingresatuta bazaude eta salatu nahi ez baduzu, ospitaleak berak jakinarazi behar die agintari judizialei edozein sexu-eraso, haren baimenarekin edo baimenik gabe, baina horrek ez du esan nahi prozedura judizial bat irekiko denik.
- Salaketa zuk zuzenean ere aurkez dezakezu hurbilen duzun polizia-etxean edo guardiako epaitegian. Azken kasu horretan, txosten medikoa aurkeztu beharko duzu.
- Soilik salaketak (bai eraso jasan duen pertsonak jarritakoak, bai dagokion agintaritzak ofizios jarritakoak) ekarriko du erasotzailearen aurkako prozedura penala hastea. Prozedura penala gogorra izan daiteke, eta ez du bermatzen erasotzaileari kondena "legitimoa" ezarriko zaionik, baina erasotzaileari aurre egiteko eta zigorgabetasuna saihesteko modu bakarra da.
- Salaketa jartzean, gogoratu abokatu-laguntza jasotzeko eskubidea duzula polizia-bulegoetan eta bulego judizialetan. Eska ezazu; izan ere, horrela abokatu batek prozesuaren funtzionamendu egokia zainduko du. Sexu-erasoetan esperientzia handia duten erakunde juridikoak eta zerbitzu espezializatuak ere badituzu.
- Administrazio-egoera irregularrean bazaude, larrialdietako osasun-zerbitzuetara doan jotzeko eskubidea ere baduzu, baita interprete bat izatekoa ere, eta, salaketa jartzea erabakitzen baduzu, doako laguntza juridikorako eskubidea ere bai.

V. PROTOKOLOAREN SINATZAILEAK

 <p>Begarako Udala</p>	
	
	
	
	

	
	
	
	
	
